

LEIBNIZ ETA EUSKARA

Zulaika Hernández, Josu M., « Nuevos datos sobre las obras vascas de Pierre d'Urte » In: *Estudios de Lingüística Universidad de Alicante (ELUA)*, 23 (2009) 315-350.

Aitortu behar dut orain arte pentsatu izan dudala Wilhelm von Humboldt (1767-1835) izan zela euskararekin (eta, beraz, Euskal Herriarekin) arduratu zen lehen pentsalari europarra, eta haren anparoan eta jarraigoan hasi zela gure herri eta hizkuntzarekiko nolabaiteko ardura Aturri ibaiatz haraindi. Baina oker nengoen, Josu M. Zulaikaren artikulua irakurtzean konturatu naiz oker nengoela guztiz: euskararekiko ardura ehun urte behintzat aurrera daiteke, eta europar filologo taldetxo txiki baina esanguratsu bat dago horretan inplikatur.

Egia da euskararekin interesatutako lehen-lehen filologo europarra, dakigunagatik, Lucio Marineo Siculo (1460-1533) izan zela, XVI. mendearen lehen herenean euskarazko hitz zerrenda bat argitaratu zuelarik, baina hortik aurrera euskararekin interesatutakoen artean nekez aurkitzen da European ezaguna den pentsalaririk Humboldt agertu arte. Orain, berriz, neuk behintzat Zulaikari esker, badugu beste katemaila bat: Gottfried Wilhelm von Leibniz (1646-1716).

Ez dut uste beharrezkoa denik orain eta hemen Leibniz aurkezten hastera, beste ohar hau, aldiz, harira etor daiteke: haren ardura intelektual ezin ugariagoen artean, hizkuntzak ere bazeuden, hots, Europako hizkuntzen artean zegoen *harmonia* (ahaidetasuna esango genuke geuk), eta arazo orokor horren baitan berebiziko ardura zeukan euskara ezagutzeko, Zulaikaren hitzetan: «al menos desde el año 1691 venía solicitando -de manera casi siempre infructuosa- información acerca del euskara a buen número de correspondientes» (324. or.). Izan ere, euskara beste guztien artean ustez hain desberdina izateak erronka intelektual handia omen zen haren ideientzat.

Leibnizen gutunak eta informazio-eskaerak jasotzen zutenen artean britaniar hizkuntzalari bat zegoen, John Chamberlayne (ca. 1666-1723), hizkuntzalaria izateaz gain goi mailako kontaktuak zituen Londresko gortean, bere zeregin politikoen artean zegoelarik Ingalaterran erbesteratutako protestante frantsesei babesa eta laguntza ekonomikoa emateko ardura zeukan elkarte bateko (*Society for the Propagation of Christian Knowledge*) kide izatea. Eta horrela iristen gara

Pierre Urterengana (hots, orduko Euskal Herrian, gaurkoan ez bezala, *Petri* izenarekin ezaguna zen horrengana). Urte protestantismora bihurtutako kaputxino euskaldun bat zen, Ingalaterrara ihes egingakoa; hori dela eta, laguntza xume bat hartzen zuen aipatu dugun elkarte kristautik, baina oso diru gutxi zen, beraz, ziur aski pozik jasoko zuen elkarteko kide nabarmen batek, Chamberlaynek, egin zion proposamena, alegia, euskarazko gramatika bat idaztea laguntza extra baten truke. Horra Urtek bere *Gramatika* idazteko arrazoia: enkarguzko lana izan zen, hizkuntzalari ingeles batek egina eta ordaindua. Baina ez da hor amaitzen kontua: Chamberlaynek Leibnizi idazten dio albiste hori emanaz, eta era berean galdetzen dio ontzat joko lukeen Urteri gramatika bat ez ezik, hiztegi bat egiteko agintzea eta, gainera, Itun Zaharra itzultzeko eskatzea. Dirudienez Leibniz primeran iruditu zitzaion kontua, eta hortik aurrera euskarari buruzko hainbat albiste eta iritzi trukatu zuten bi pentsalariak, besteak beste Chamberlayneren *Oratio dominica* (1715) ezagunean kolaboratu zuelarik. Ez da euskararena beren gutunetan tratatu zuten gai bakarra; adibidez, sasoi horretako eztabaidagai nagusietakoa Europako intelektualen artean iza zen erabakitzea nor izan zen kalkulu infinitesimalaren aurkitzailea, Leibniz ala Newton; bada, goi-goi mailako arazo intelektual (eta politiko) horretan Chamberlayne saiatu zuen bien arteko ararteko lanak egiten, arrakastarik gabe.

Alegia, euskarari buruz hitz egiten ari diren bi jaun hauek ez dira, inola ere, pertsona ezezagunak orduko European, ezta gaur egungoan ere (Chamberlayne, jakina, espezialistentzat geratu da). Baina ez dira ere euskararekin interesatzen ziren bakarrak; Zulaikaren meritu handienetako bat, nire usteaz, da erakustea bazirela beste hizkuntzalari batzuk ere interesatuta, euskarari buruzko informazio eske, eta horietako batzuk aipatzen dizkigu: William Nicolson (1655-1727), Edward Lhuyd (1660-1709), William Wotton (1666-1727), Mathurin Veyssière de Lacroze (1661-1739), Paul Ernst Jablonski (1693-1757) eta Nicolas Fréret (1688-1749). Ez dira denak maila berekoak, ez dira denak ezagunak gaur egun, baina guztiak dira euskararekin neurri batean interesatutako hizkuntzalariak.

Egia da ez garela mutur batetik bestera pasatu behar, alegia, lehen basamortu hutsa ikusten genuen lekuan (Larramendik betetzen zuen mendea, eta kitto) orain ezin gara hasi itzelezko garrantzia lukeen hizkuntzalari talde handia ikusten. Orekaren alde esan dezagun, besteak beste, Urtek lan bakarra bukatu zuela, *Gramatika*, beste biak ziur aski Chamberlayneren dirulaguntzak agortu zirenean eten zituelarik; gainera, haren lan bat bera ere ez ez da argitaratu XX. mendera arte. Bestalde, Leibnizen ardura euskararekiko beharbada ezaguna izan da espezialistentzat, baina bere momentuan ez zuen aparteko emaitzarik ekarri eta esango nuke ez dela batere nabarmendu orain arte. Dena den, jakitea 1700 aldean Leibniz bezala beste dozena erdi bat hizkuntzalari zeudela euskararekin

interesatuta datu garrantzitsua da, nire ustez, euskararen historiarentzat. Hori dela eta ekarri dugu hona.

Josu M. Zulaika Alacanten bizi den euskal ikerlaria da. Aipagai izan dugun artikuluaz gain, berriki beste hau ere idatzi du, ildo berean: «El euskera en la obra de Edward Lhuyd (1660-1709)» in *Oihenart*, 24 (2009) 291-334, eta beste pare bat omen ditu laster argitaratzekoak *Fontes* eta *ASJU* aldizkarietan.

Pruden Gartzia